

TRUMOIAREN ALABA

JON ARRETXE



erein

TRUMOIAREN ALABA

JON ARRETXE

Perzebal, 42

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47)

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2020ko azaroan

Liburuaren diseinua:

Iturri

Azaleko marrazkia:

Cristina Fernández

Maketazioa:

Erein

© Jon Arretxe

© EREIN. Donostia 2020

ISBN: 978-84-9109-649-8

L. G.: D 1121/2020

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008

itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

TRUMOIAREN ALABA

JON ARRETXE



erein



AURKIBIDEA

1. Rubiah eta Iboih	7
2. Iragarpena	14
3. Hondamendia	21
4. Txiroen elkartasuna	28
5. Hil edo biziko borroka	36
6. Oihanaren suntsiketa	42
7. Jende gaiztoa	49
8. Raftinga	60
9. Bigarren zoritxarra	70
10. <i>Bataken</i> lurraldea	79
11. Anbaritako harrien misterioa	86
12. Bufalo garailea	93
13. Merapi mendiko lorea	99
14. Amets argigarria	104
15. Saguzarren mezua	111
16. Ustekabeko topaketa	119
17. Erlojuaren kontra	125
18. Sekretuak	130
19. Orain	135

RUBIAH ETA IBOIH

17.508 irlen herrialdean jaio nintzen, horietariko lehenengoan, gainera, edo 17.508garrenean, nondik hasten garen zenbatzen, iparraldetik ala hegoaldetik. Kontua da Indonesiaren ipar muturraren muturraren muturrean dagoela kokatuta Weh, gure uharte txiki ederra.

Nire izena Batari da eta familia apal baten baitan jaiotako lehenengo umea izan nintzen. Nire atzetik beste hainbat etorri ziren ia jarraian eta horrek lan asko ekarri zidan, zeren, etxeko alaba nagusia izanik, haiek denak zaindu behar izan nituen, eta horrez gain, gurasoei lagundu behar izan nien arrantzan, ehizan edo baratzean.

Gehien gustatzen zitzaidana aitarekin ehizan joatea izaten zen, zeren gure irlan oihan itxia zegoen eta oso kilikagarria izaten zen animalien arrastoen atzetik ibiltzea. Aita, gizon ausarta eta ehiztari trebea, Weh ondoko Sumatrakoa zen jatorriz. Esaten zidanez, Sumatra eskergan era guztietako piztiak zeuden: tigreak, elefanteak, errinozeroak, orangutanak... Weh apur bat apalagoa zen, baina bageneukan ehizan zer harrapatu, esaterako basurdeak, gure gogokoenak. Arma ugari

geneuzkan zeregin horretarako: lantzak, arkuak eta geziak, baita eskopeta bat ere, eta aitak denak erabiltzen irakatsi zidan.

Gure etxea umez bete ahala, ehizaz apur bat ahaztu eta gero eta denbora gehiago eman behar izan nuen haiiek zaintzen. Eta, egia esateko, zeregin hartan ere ez nuen batere txarto pasatzen. Txangotan eramaten nituen txikiak leku askotara, adibidez sumendiko fumaroletara, eta han lehian aritzen ginen nork luzaroen aguantatu haietatik ateratzen zen sufre-usain nazkagarria. Gure beste zaletasun bat basoko musker erraldoiak zelatatzea izaten zen, antzinako dinosauroen ondorengo zuzenak omen direnak. Eta ura ere gogoko genuen, jakina, gure herrialdea oso beroa baita. Batzuetan Pria Laot ur-jauzietara joaten ginen eta, bainatzeaz aparte, putzuetara saltoka barrez jarduten genuen. Hondartzetan ere egoten ginen, gehienbat Iboih herrixkaren ondokoan eta, olatuekin jolasteaz gainera, mila kolore eta itxuratako koralak eta arrainak mires-ten genituen, kristalezko poto txikiak betaurreko gisa erabiliz. Diotenez, munduko ikusgarrienetakoa da Weh aldeko koral-gunea, eta gu ez ginen inoiz nekatzen hura miatzeaz, pelikula harrigarri bat ikustea bezalako zen eta.

Leku bakarra zegoen etxeko txikiak eramaten ez nituena: Iboih-ko hondartzaren aurrean dagoen irla ñimiñoa, Rubiah. Gurasoek txikitatik debekatu zidaten hara hurreratzea, toki madarikatua zen eta. Zaharrek ziotenez, Iboih eta Rubiah benetako gizon-emakumeak izan ziren, gazte-bikote maitemindua, baina

egun batean elkarrekin haserretu eta neska uhartetxo horretara joan zen bizitzera. Joan eta inoiz itzuli ez. Hantxe hil zen, bakar-bakarrik, haren gorpua ez zuten topatu, baina haren mamua hantxe gelditu omen zen, eta edozer egiteko gauza omen zen bisitariak uxatzeko. Urte batzuk geroago, adibidez, zoroetxe bat jarri zuten Rubiah-n, baina sute bat gertatu zen eta ero guzti-guztiak erre ziren. Eta handik gutxira, laurehun bidaiari zeramatzan ferry bat irlatxotik hurbilegi igaro zenean, bat-bateko enbata sortu, ontzia hondoratu eta ia bidaiari guztiak ito ziren.

Arrazoi nahiko eta sobera ziren horiek edonori Rubiah-ra hurbiltzeko gogoa kentzeko. Gurasoek askotan gogorarazten zidaten mamu eta arima penatu gehiegi zebiltzala hango aldean, eta ez joateko inola ere, baina aitortu behar dut ez nintzela guztiz txintxoia izan agindu hura betetzerakoan. Etxeko txikiak ez nituen inoiz eraman uharte madarikatura, ez, baina ni neu bai joan nintzela inoiz edo behin, nire adineko beste neska-mutil batzuekin.

Lehenengo bisita ez daukat ahazteko. Igerian pasatu ginen lauzpabost adiskide, kilometro bat ere ez baitago bi uharteen artean, eta gu denok arrainak bezala moldatzen baikinaren uretan. Bagenekien, behin koral-gunea igarota, marrazoren batekin topo egiteko arriskua zegoela, baina marrazo mota asko daude eta gure inguruko uretan zebiltzanak ez ziren arriskutsuak. Beraz, lasai joan ginen alde horretatik behintzat.

Ez genuen inolako arazorik izan koral-gunea zeharkatzeko, marrazoek edo ur-korronteek ez ziguten

trabarik jarri, eta hamabost minuturen buruan Rubiah-ko hondartzatxoan geunden. Estrata erdi estali bati jarraituz, palmondo baso batean barruratu ginen, hotzikarak sentitu genituen denok zoroetxe zaharraren hondakinen ondotik igarotzean, eta gure hotzikarak ikarazko oihu eta zalaparta bilakatu ziren ustekabeen emakume erraldoi batekin topo egin genuenean. Weh-ko gizonik altuenak baino handiagoa zen, meharra eta zurbila, gihartsua, praka labur eta bularretako beltzak zeuzkan jantzita eta ile oso luze eta horia zeukan. Ez dakit ezer esan ote zigun ere, hain ozenak izan ziren gure txilioak. Kontua da arrapaladan itzuli ginela hondartzara, uretara salto egin eta joatean baino askoz arinago egin genuela bueltako bidea Weh-ra.

Iboih-ko hondartzara ailegatutakoan eseri eta gertatutakoaz hitz egin genuen, lasaitasuna berreskuratzeko ahaleginez.

—Rubiah-ren izpiritua zen —esan zuen batek.

—Izpirituak ez dira ikusten —beste batek—. Hori benetako pertsona bat izan da, baina non arraiotik atera ote da?

—Agian zoroetxeko sutetik salbatu zen —hirugarrenak—. Ohartu zarete nolako ero-begirada zeukan?

—Bai, niri horrexek eman dit beldur gehien —esan nuen nik—, begiradak. Baina nik uste dut emakume hori ez dela ez Rubiah ez zoroetxetik irtendako bat. Itxurari erreparatu diozue? Altuera hori, begi argi horiek, ile horia... Indonesian ez dago horrelako jenderik. Nik uste dut atzerritarra dela, agian ferryko istriputik salbatu ziren bidaiarietako bat.

Ez ginen ados jarri, zalantzasz beterik geunden denok. Hala eta guzti, aurrerantzean andre hari «holandarra» deitzea erabaki genuen. Zergatik? Eskolan Indonesiako historiiaz ikasitakoa ekarri genuelako gogora: gure herrialdean inoizko gerraterik luzeena gertatu eizzen, berrogei urtetik gorakoa, Holandaren kontra, eta holandarrak oso handiak eta ile argikoak izaten ziren, antza. Beraz, kito, ezizen hori jarri genion Rubiah-ko emakumeari. Edonola ere, gure txangoaz inori ezer ez esatea adostu genuen.

Hartutako sustoaren eraginak egun batzuetan iraun zuen, eta tarte horretan gaia ia aipatu ere ez genuen egin. Baina, pixkanaka, gomuta txarrari jakin-mina nagusitu zitzaion eta, halako batean, beste txango bat antolatzea erabaki genuen.

Bigarren aldian tentu handiagoz ibili ginen. Ahalik eta zarata gutxien ateraz egin genuen igeri Rubiah-ko hondartzaraino, era berean zeharkatu palmondo basoa... eta orduantxe jo genuen begiz «holandarra», irlatxoaren beste aldeko hondartzatxoan eserita, marrazkiak egiten blok handi batean, bi tximino jostalari alboan zeuzkala.

Ez ginen hurbildu haiengana, besterik gabe emakume bitxi hari begira egon ginen, elkarriz xuxurlaka. Ez zirudiela ez mamua ez zoro arriskutsua begitandu zitzaigun. Etxola bat ikusi genuen hondartzaren txoko batean, teilatuan ontzi handi bat zeukana, eurien ura biltzeko, ziurrenik, eta han lo egiten zuela ondorioztatu genuen. Eta elikatzeko... tira, koko ugari zeuden palmondo basoan, eta toki hartan arrantza ez zen falta.

Arratsalde hartan andreak oso denbora luzea pasatu zuen marrazten, edo hodeiertzera begira, edo bere tximinoekin jolasean... Eta altxatzekoa egin zuenean, gu ere palmondo basoan barruratu eta Iboih-ra itzuli ginen.

Beste txango batzuk egon ziren eta gure ausardia handituz joan zen apurka. Holandarraren portaerak eta mugimenduak aztertu genituen: denbora gehiena hondartzan egonean ematen zuen, hodeiertzera begira, norbaiten edo zerbaiten zain balego bezala. Marrazten ere ordu asko pasatzen zituen, eta arrantzan edo baratzte txiki bat lantzen ere jarduten zuen. Urrunegi egoten ginen ondo entzuteko, baina tximinoekin mintzatzaren zen, eta hauek belarrira hitz egiten ziotenean adostasun keinuak egiten zituen, eta batzuetan baziurdi haiek xuxurlatzen ziotena blokean marrazten zuela. Beste batzuetan, ordea, itxurazko arrazoirik gabe, andre hark sekulako umore aldaketak izan eta oihi nahiz madarikazio itzelak botatzen zituen batek daki zer hizkuntzatan. Agian ez zen izango zoroetxeko sutedik salbatutako ero bat, baina burutik oso sano ere ez zegoela iruditu zitzaigun.

Behin, baratzera joanda zegoela aprobeixatuz, gutako bat talaian utzi eta besteok hondartzan utzi zuen bloka aztertzen ausartu ginen. Ikusi genituen marrazkiek hotzikarak eman zizkiguten: beldurgarriak ziren eta hondamendiak islatzen zituzten: suteak, enbatak, itsasontzien istripuak, sumendien leherketak...

Marrazkien misterioa argitu ondoren eta hurrengo bisitetan ezer berezirik gertatzen ez zela ikusita,

kuadrillako besteei Rubiah-ra itzultzeko gogoia apur bat baretu zitzaien. Niri, ordea, kontrakoa gertatu zitzaidan, jakin-mina handitu baino ez zitzaidan egin. Nigatik izan balitz, egunero joango nintzen holandarra zelatatzerara; eta, gainera, harekin komunikatzeko momentua heldu zela uste nuen. Baina adiskideei proposamena egin nienean ez nuen inoren konplizitatea lortu.

Gauzak hala, inoren laguntzarik izango ez nuela jabetuta, egun batean Iboih-ko hondartzara joan eta igerian abiatu nintzen, bakar-bakarrik, Rubiah irlarantz.

IRAGARPENA

Arratsalde hartan ere ohiko lekuan topatu nuen ilehori misteriosua: uhartearen atzealdeko hondartzan, marrazten. Tarte luze samarra pasatu nuen palmondo basoaren ondoko sastraka batzuen atzean ezkutaturik, ezbaian, ausardia nireganatu nahian harengana hurbiltzeko... Baina andrea aurreratu zitzaidan:

—Kaixo, neska —bota zidan, ustekabeen. Neure hizkuntzan, gainera—. Ez izan beldur eta irten ezkuta-
lekutik. Zerbait oso inportantea esan behar dizut.

Ahots ozena zeukan, ziurtasun handia adierazten zuena. Tentuz eta, aldi berean, kilikaduraz hurbildu nintzen itsasaldera begira jarraitzen zuen emakume harengana.

—Bazenekien hor nengoela? —itaundu nion.

—Noski! Eta badakit egun askotan egon zaretela zu eta zure lagunak ni zelatatzen.

—Nola liteke? —esan nion, txunditurik.

—Tximinoek esan didate.

Animaliei erreparatu nien, andreak adarra jo nahi ote zidan zalantzan. Bata handiagoa zen bestea baino, baina biek zeuzkaten begi bizi-biziak, eta nini oso-oso

txikiak, erotasun kutsua ematen zietenak. Niganantz jiratu zen andrearen begiradarekin egin nuen topo orduan, eta haren niniek ere antzeko adierazpena zutela iruditu zitzaidan. Hotzikara sentitu nuen.

—Ama-sembleak dira, Hellen eta Abadi. Ez zaizkizu maitagarriak iruditzen?

Buruari bueltaka hasi nintzen. Nor arraio zen andre hura? Eta nongoa? Agian okertu egin ginen «hollandarra» deitzerakoan. Izan ere, gure hizkuntzaz primeran moldatzen zen eta, ez ote zen izango... Funtsezko zalantza sortu zitzaidan.

—Rubiah zara? —ausartu nintzen galdetzen, azkenik.

—Ez —erantzun zuen, eta lasaialdia sentitu nuen, baina gutxi iraun zidan—. Ez naiz Rubiah, baina haren laguna bai. Ezagutu nahi duzu?

—Ez! —atera zitzaidan berehala.

—Gauero mintzatzen naiz harekin. —Begi-nini bixi haien iltzadura sentitu nuen, eta irribarre enigmatikoa marraztu zen emakumearen aurpegian—. Ilundu arte geratzen bazara, aurkeztuko dizut.

—Ez —errepikatu nuen, itxura lasaiari eusteko ahalleginez—. Eskertzen dizut, baina etxeko ume txikiak zaintzera itzuli behar dut.

—Ederto, alaba ona zara, ikusten dudanez. —Irribarrea apur bat apaldu zitzaion—. Dena dela, nahiz eta Rubiah, oraingoz, ezagutzeko gogorik ez izan, ziur beste zerbait jakin nahi duzula, ezta?

—Ba... tira... —Hitzak ez zitzaizkidala ateratzen ohartu nintzen.

—Ez izan beldur eta bota –lagundu zidan–. Zertan lagundu ahal dizut?

—Zu nor zaren jakin nahi nuke –esan nuen, behingoz–. Etxe zaharra erre zenean hemen zeunden?

—Ez nintzen zoroetxeko gaixoa, hori baldin bada zure zalantza, baina erretako zoroen arimekin ere mintzatzen naiz gauetan. Horiek ere ez dituzu ezagutu nahi, noski.

Ezezko keinua egin nion buruaz.

—Hala ere, neska ausarta ematen duzu –jarraitu zuen–, eta hori ondo etorriko zaizu aurrerantzean. Zenbat urte daukazu?

—Hamalau, bete berriak.

—Adin polita. Eta nola duzu izena?

—Batari. Eta zuk?

—Nik Silke.

—Ez dut inoiz entzun izen hori. Nongoa da?

—Holandakoa.

Irriño bat atera zitzaidan, eta arnasa hartu nuen, baita apur bat lasaitu ere. Ez zirudien holandarrak –orain banekien ezizen aproposa ipini geniola– niri inolako kalterik egiteko asmorik zeukanik.

—Hondoratu zen ferryan zeunden? –galdetu nion.

—Ez, hor ere ez nengoen, baina... –Isildu egin zen.

«Baina... itotako jendearen izpirituekin ere mintzatzen naiz gauero», erantsi behar zuela imajinatu nuen.

—Horixe! –bota zuen, nire gogoeta irakurri balu bezala–. Neska azkarra zara. Hori ere ondo etorriko zaizu.

Ondo etorriko zait azkarra eta ausarta izatea? Zertarako? Tira, behintzat ez zidan berriz galdetu ea ferryan itotakoen arimak ere ez nituen ezagutu nahi. Dena dela, hasieran baino are zalantza gehiagorekin utzi ninduen. Oraindik ez nekien emakume hura nondik etorria ote zen, ezta bere berbez fidatu ahal nintzen ala zoro hutsa zen. Bazitekeen sorgin antzekoa izatea, edo igarlea, edo horrelako zerbait. Gure aitak esaten zuenez, Sumatraren barrualdean, bere herriaren inguruan, bazeuden aztiak, botere bereziak zeuzkaten mago modukoak, izpirituekin hitz egiteaz gainera, etorkizuna asmatzeko gauza ere bazirenak. Baina emakume hura europarra zen eta europarrek ez omen zuten horrelako gauzetan sinesten. Nor arraio zen holandarra? Edozein kasutan ere, berarekin pixka batean berriketan jardun bai, baina erabaki nuen irla hartan gauera arte ez nintzela inola ere geratuko.

—Zergatik marrazten dituzu hondamenak eta gauza beldurgarriak? —Hareatzen utzitako bloka seinalatu nion.

—Hellen eta Abadik eskatzen didatelako.

Berriz bururatu zitzaidan burla egin nahi ote zidan. Baina haren musuak kontrakoa adierazten zuen, serriotzen ari zen.

—Zuk zeuk ikusi dituzun zoritxarrak dira?

—Gehienak bai, ikusi ditudanak edo hemengo lagunek kontatu dizkιδatenak. Baina blokeko beste marrazki batzuk gertatuko diren hondamendienak dira.

Hitzik gabe geratu nintzen segundo batzuetan. Silkeren tximinoak nirekin konfiantza hartzen hasita

zeuden eta ileetatik tiraka ari zitzaizkidan. Eskerrak ile motza neukan! Zakarregia izan gabe uxatzea lortu nuen eta euren jabearengana itzuli ziren. Zerbait xuxurlatu zioten belarrira, niri begira.

—Orain ere berba egin dizute? —galdetu nion.

—Bai, zera diote, pena dela zu ez gelditzea gaua pasatzen.

Isilik geratu ginen denok eta haien hiruren begi-nini bitxien eragin zirraragarria sentitu nuen berriro. Horrela egon ginen pixka batean, nik ahoa zabaltzea erabaki nuen arte:

—Etxera itzuli behar dut, nire familiak han behar nau eta.

—Badakit, lasai egon.

—Dena dela, alde egin aurretik, beste zalantza bat argitu nahi nuke.

—Bota.

—Lehen, hasieran, zerbait oso inportantea esan behar zenidala ulertu dizut.

—Halaxe da. —Holandarrari aurpegiera areago seriotu zitzaion—. Zerbait oso-oso inportantea, funtsezkoa.

Begirada trukea egin zuen tximino amarekin, adostasuna eskatuz bezala, eta ni azalpenaren zain geratu nintzen, irrikaz.

—Alde egin behar duzue hemendik —bota zuen, azkenik.

—Alde? Nork? Nondik?

—Denek: zure lagunek, zuen familiakoek, herritar guztiek. Ihes egin behar duzue lehenbailehen Weh ir-
latik.

—Zergatik?

—Hondamendi itzela datorrelako.

—Zer hondamendi?

—Oraindik ez nago seguru, baina alde egin behar duzue.

—Nora? Hemen dauzkagu gure etxeak, gure ondasun guztiak...

Silkek bloka hartu zuen esku artean eta orriak pasatzen hasi zen: sua, laba, ekaitzak, lurrikarak... ageri ziren orrietan, baita etxe hondatuak ere, eta bertako biztanleak ikara-keinuka, erretzen, itotzen edo lurperatzen ari ziren.

—Zuen etxe eta ondasunak desagertu egingo dira hemendik gutxira —berretsi zuen, ahoskera tinkoaz—. Zorigaitz itzela dator, inguru eder hau zeharo hondatuko duena. Egidazue kasu eta ospa egin ahal duzuen bitartean.

Isilaldi luzea etorri zen jarraian eta holandarra, bloka hareatzen utzi ondoren, hodeiertzera begira geratu zen. Eta ni hausnartzen, erabat nahasturik. Haren iragarpena zenbateraino hartu behar nuen kontuan? Istorio harekin joan behar nuen adiskideengana, gurasoengana...? Adiskideek, ziurrenik, barre egingo zidaten. Eta gurasoek? Hauei azalpen gehiegi eman behar nien eta zer lortuko nuen? Hasteko, sekulako errieta Rubiah irlara baimenik gabe joateagatik. Eta gero ziur txoriburu edo mamalatzat hartuko nindutela.

Hodeiertzera begiratu nuen nik ere, iluntzen hasita zegoen eta alde egiteko momentua iritsi zela erabaki

nuen. Zutik ipini nintzen eta azken galdera egin nion Silke holandarrari:

—Horren seguru bazaude zoritxarra datorrela, zuk ere alde egingo duzu hemendik, ezta?

—Nik ez daukat horren beharrik.

—Zer ba?

—Rubiah-k babestuko nauelako, beste batzuetan bezala. Zin egin dit.

Esan beharrekoak esanda zeuden. Beraz, beste ezer erantsi gabe, andre bitxi hari agur esan eta palmondo basoan sartu nintzen. Haren barrualdea ilun samar zegoen jada eta martxa bizkortu nuen, zuhaitzen artean itzal susmagarriak imajinatzen hasita nengoen eta. Hondartzatxora ailegatutakoan, korrika hasi, uretara salto egin eta Iboih-rantz abiatu nintzen igerian.